



ELIRALE KONPAINIAK

AURKEZTEN DU
BERE
SORKUNTZA BERRIA





NINIKA

Mairi eta Hélèneri keinuz

Zuria neguagatik eta gorria neguko distiragatik... Ninika gorputzaren oda dugu, jantzien eta mugimenduen bitartez egina, eta poesiaz eta sentsualtasunez betetako ikuskizun paregabe horren bitartez, haurrek eta helduek une ahaztezina igaroko dute elkarrekin.



3 dantzarientzako koreografia-lan horretan mintzaira garaikidea eta euskal mintzaira tradizionala nahasten dira, eta 4 urtetik aurrerako gazteentzat da. Poesia eta absurdotasuna

hainbat sainetetan korapilatzen dira. Ninika konpainiak, bere lur gorri koloretsuarekin, denborari eta espazioari itxura ematen dieten elementu kubiko ahokagarri zuriekin, funtsera garamatza... gorputz-mugimenduaren beraren funtsera.



Jantzien eta horien historiaren bitartez, denboraz kanpoko eta denboraz haratagoko bidaia batera garamatza Ninika Konpainiak, eta urtarook igaro ahala, bidaia horrek jantzi eta erantzi egiten du, nolabaiteko biluztasunari aurre egitera bultzatuz ikusleak. Horrela, ikuskizuna helduentzat ere bada, eta heldu bakoitzak bere moduan interpretatu ahal izango du.

SORKUNTZA ETA PROGRAMAZIOA

2011ko martxoaren 14a (astelehena): sorkuntza, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren kultura-denboraldiaren esparruaren barruan, 2011ko martxoaren 14tik 9ra Hendaian –Mendizolan aretoan– 10 emanaldi programaturekin.

2011ko apirilaren 28a: Donibane Garaziko Pays Baxe Nafarroa Eszenatokian 2 ikuskizun programatuta.

SENTSIBILIZAZIOA

Haurrentzako tailerrak eskoletan

Eskoletako irakasleek zuzendutako tailerrak

Eskoletako ikasleentzako eta oro har edonorentzako entsegu publikoak

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren eta Kukai Konpainiaren laguntzarekin



Jauregia- Maison des Associations

64310 Azkaine

txikapan@yahoo.fr

www.elirale.org

NINIKA

Dantzarietzako koreografia-lana

Iraupena: 45 min.

Ikusleak: 4 urtetik aurrerako gazteak

Dantzariak: *Vivien Ingrams, Lorentxa Iturralde eta Jose Cazaubon*

Koreografoa: *Pantxika Telleria*

Zuzendaritza-laguntzailea: *Joxelu Berasategui*

Dantza tradizionalako laguntzailea: *Jon Maya*

Musika: *Joseba Irazoki*

Eszenografia, jantzi-diseinua, bisuala: *Maialen Maritxalar*

Osagarriak: *Annie Onchalo eta Suak Konpainia*

Jantziak: *Karine Prins*

Argiztapena: *Javi Ulla*

ANTZOKIKO BERTSIOA

Edukiera: 120 pertsona

Eszenatokiaren gutxieneko neurriak: 8m x 8m

Altuera sabai azpitik: gutxienez 4m

Geuk hornitutako linolio gorritz estalitako lurra

Soinua: MiniDisc-a edo itzulera duen CDa

Argia: idatzi gabeko fitxa teknikoa

IUR OROTAKO BERTSIOA

Eszenatokiko bertsioa bestelako tokietara egokitzeko aukera, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

Edukiera: 80 haur 100 m²-ko areto baterako (tokiaren edukieraren eta konfigurazioaren arabera).

Eszenatokiaren gutxieneko neurriak: 8m x 8m.

Altuera sabai azpitik: gutxienez 3m.

Geuk hornitutako linolio gorritz estaliko da lurra. Erne: galtxadarri-lurra ezin da erabili.

Aldagela gertu.

Soinu-teknika konpainiaren eskutik: 220V-ko hartunea behar da.

Argia: antolatzaileak izango du aretoan behar adinako argiztapena bermatzeko ardura.



Jauregia- Maison des Associations

64310 Azkaine

txikapan@yahoo.fr

www.elirale.org



DENBORAREN IRAGAITEA...

Pantxika Telleria Donibane Lohitzuneko koreografoaren borondatez, 2001eko martxoan sortu zen Elirale Konpainia.

0001 Amandine Mano-k sortutako lehen bakar-saioa dugu; Ballet de Nancy konpainian egiten du lan Amandine Manok gaur egun. Manoren bigarren bakar-saioak, **Firua** deritzonak eta Célia Thomas-ekin sortuak, 2002an lehen postua lortu zuen Eusko Jaurlaritzaren "Koreografo Gazteak" kategorian. Urte horretan bertan, Marseillako Ballet Eskola Nazionaleko (Pietragalla) gonbitari erantzun zion Pantxika Telleriak, *Esquisse pour une vie* 15 dantzarirentzako koreografia-lana sortuz. 2002ko maiatzean aurkeztu zen lan hori Marseillako Operan eta adierazitako eskolako erreperitorioan egon da harrez geroztik.

2002ko uztailean, Carcasonako jaialdian Elirale Konpainiak bere burua ezagutzera eman zuen. Jaialdi horretan **Eden** programa aurkeztu zen; honako 3 obra hauek osatzen zuten programa hori: **Andante, Eden** eta **Exquise exubérance**. 2002ko abuztuaren irailean eta urrian hedatu zen arestian aipatutako programa, bereziki, Donibane Lohitzunen, Elirale Konpainiaren jatorrizko hirian, hain zuzen. Elirale Konpainiak Frantzia eta Espainian egindako emanaldietan nahiz sentsibilizazio-tailerretan eta entsegu irekietan, jarrera ezin sutuagoa izan du jendeak zein prentsak koreografoak egindako proposamenekin.

2003an, Pantxikak bere keinu-mintzaira berrikusi zuen **Hiruki** eta **Lauki** sorkuntza berriekin; Biarritzeko Temps d'aimer jaialdian aurkeztu zituen bi lan horiek. Konpainia zuzentzeaz gain, Pantxikak hainbat jarduera egiten ditu tokian bertan, batik bat, haurrak, eskoletako ikasleak –eta oro har, edonolako ikasleak– edota mundu osoko dantzariak euskal dantza tradizionalaren gainean sentsibilizatzeari dagokionez.

2004an ziklo berri bat hasi zen koreografoaren eta Konpainiaren bizitzan. Ama izan ondoren, sorkuntza-mundua ikusle gazteengana hurbiltzeko premia sentitzen hasi zen Pantxika, eta horregatik, 2005ean **Kadira** sortu zuen.

Modu esperimentalean, **23: 22** bakar-saioa sortu zuen 2006an, Pariseko Operako dantzari Sébastien Bertaud artistak antzeztutako lana, hain zuzen ere. Koreografiarako ardatz berria izan zen lan hori, eta eragina izan zuen **Lodikroko** –haur txikiarentzako lana– eta **Pastiche** –50 urtetik gorako bederatzi dantzarirentzako eta hamabost musikarirentzako lana– obretan. 2007an sortu ziren bi lan horiek. Geroago, 2009. urtearen hasieran, Pantxika Telleriak Jon Mayak egindako gonbitari erantzun zion, Kukai Konpainiarekin **Soka** obra sortuz. Urte horretako maiatzean, Elirale Konpainiak norabidea aldatu zuen, atal artistikoa eta administrazio-atala Azkainen kokatuz, zehazki, dantza-jardueretarako prestatutako Jauregian. 2009ko azaroan, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren laguntza finantzarioarekin, Konpainia hauren mundura itzuli zen, **Otto** sortuz. 2010ean, berriz ere Jon Mayaren laguntzari esker, **Sok2** sortu zen, 7 dantzarirentzako eta 3 musikarirentzako pieza, hain zuzen ere. 2011rako iragarritako sorkuntza berriarekin, hots, **Ninika** lanarekin, ikerketaren egungo norabideak eguneroko bizitzako gorputz-oihartzunak aztertzea du oinarri.



HARREMAN PRIBILEGIATUA IKUSLE GAZTEEKIN...

KADIRA (2005ean sortua)



Aulki bat, neska bat, eta mutiko bat: elkarrekin topo egiten duten bi izakiren istorio xumea.

“Kadira” hitzak “aulkia” esan nahi du. Umoreaz eta arintasunaz baliatuz, bi dantzarik keinuen eta dantzaren atseginez gozatzeko aukera ematen diete haurrei: irudimena errealitatearen gainetik nagusitzen da, eta aulkia edozer gauza bilaka daiteke, aulki izan ezik.

LODIKROKO (2007an sortua)

Haur eta gazteentzako ikuskizuna: haurtzaindegi eta eskolaurretarako.

Poesiarako eta ametsetarako unea, baina baita gorputzerako unea ere.

Toki intimista batean, haurrentzako gaien bitartez.

Ikuskizun horretan, guztia da jolasa: soinua, erritmoak eta errimak.



OTTO (2009an sortua)



Otto, osaba; haurren eguneroko bizitzan barrena egindako bidaia.

Bertara beste modu batean hurbiltzen garenean eta beste modu batean begiratzen diogunean ingurunea zoragarri bilakatzeari buruzko obra.

Bidaia poetikoa, haur-sentsibilitatearen munduan murgilduz.

Hiru gizonen antzeztutako koreografia-ipuina eder horretan samurtasuna eta groteskotasuna nahasten dira.

SENSIBILIZAZIOA ETA TAILERRAK

Ikuskizunak antzezteaz gain, Elirale Konpainiak ikusle gazteekin ere badihardu. Horrela, tokian bertan benetako esperientzia duela frogatzen digu: eskola-ingurunean kultura-ibilbideak txertatuz, konpainiak egiten dituen ikuskizunekin lotutako sentsibilizazio-tailerrak proposatuz eta eskolaz kanpoko jarduerak gisa, espresio- eta sorkuntza-tailerrak eskainiz.



Konpainiak oraindik antzezten dituen ikuskizun horietakoren bati buruzko galderarik baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan.

Anne Laure Saplairoles Official

Ekoizpen- eta hedapen-arduraduna

☎ : 06 60 56 33 44

✉ : offprod64@gmail.com

Pantxika Telleria

Zuzendari artistikoa

☎ : 06 62 36 98 54

✉ : txikapan@yahoo.fr



Jauregia- Maison des Associations

64310 Ascain

txikapan@yahoo.fr

www.elirale.org



ELIRALEK HONAKO
HAUEI ESKERRAK
EMATEN DIZKIE,
JASOTAKO
LAGUNTZAGATIK

Azkaineko Udalerria

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa

Euskal Kultur Erakundea

Conseil Général

Conseil Régional

Harri Xuri

***Akitania-Euskadi Lankidetzaren funtsaren esparruan EliraleE konpainiak Kukai konpainiarekin
elkarlanean egiten duen Soka proiektuaren barrukoa da Ninika***

